

2023ko Urtarrilaren 26a

Kaixo denoi

Asteburu honetan, Herri kiroletako, Kirol egokituko eta Pilotako azken jardunaldia izango dugu. Aurreko jardunaldian parte hartzea ona izan zen eta aurreko urteetan baino ikasle gehiagok parte hartu dute. Dena den, eta talde-kirolekin alderatuz, parte hartzea nahiko txikia da. Hau dela eta, Zarautz, Aia, Orio eta Getariako ikastetxeetatik talde-kirolak ez diren kiroletan ere parte hartzera animatu nahi zaituztegu.

Batetik, kirol aniztasunak gure kirolari gazteei ekartzen dizkien onurengatik. Asko aberasten du gure ikasleen ikasketa prozesua eta oso garrantzitsua da ahalik eta jarduera ezberdin gehien probatzea. Egoera ezberdinak bizituz, ikaspena integralagoa delako. Gaitasun ezberdinak lantzeaz gain, gure gaztetxoak ahalduntzen laguntzen du egoera ezberdinak esperimendatzeko.

Bestetik, antolatzaileekiko errespetuz ere, lan handia egiten dute jardunaldi hauek antolatzeko eta txanda bakoitzean 200 haurrentzat jarduera prestatu ostean erdiak agertzea pena da.

Beraz, eskertuz gure eskualdean Eskola kirolak duen harrera zoragarria, ea denon artean are eta hezigarriago eta arrakastatsuagoa egitea lortzen dugun. Animatu etxeko txikiak eta bete ditzagun larunbatean frontoi, probaleku eta kirol zelaiak.

Mila esker

Sinatzaileak



IKAS
KOMUNITATE
ERALDATZAILEA

